

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezin gainerako zergaren 2022ko ekitaldiko erroldak

Ondasun higiezin gainerako zergaren Foru Arauak 21.2 artikuluan xedatutakoa betez, landa eta hiri ondasun higiezin gainerako zergaren 2022ko erroldak jendaurrean jartzen dira udal idazkaritzan, hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan aztertu eta egoki jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Aldi berean iragartzen da ondasun higiezin gainerako zerga epe hauetan kobratuko dela:

1. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: udalak ondasun higiezin gainerako zerga bi zatitan bilduko du, eta zati horietako bakoitza ordaindu beharreko kuotaren ehuneko 50ekoa izango da. Lehenengo zatia ekainean kobratuko da, eta bigarrena, azaroan.

B) Premiamendu aldia: lehenengo zatiarena, 2022ko abuztuaren 15etik aurrera, eta bigarrena, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera; egun horietatik aurrera premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiko da, kasuan kasuko erreklamararekin (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako Zergena, 28. artikulua).

2. Ordaintzeko tokia eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak.

Ordainketa bankuren batean helbideratuta ez daukatenek ezin izango dute ordaindu borondatezko epearen barruan udal bulegoetan baino.

3. Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen alta edo aldaketak, zein interesdunei jakinarazpenak egiteko helbideratzeen aldaketak, Aguraingo Udalaren bulegoetan izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da hau.

Agurain, 2022ko maiatzaren 4a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES